

ORGA JOKOA

JOKOAREN OINARRIA

Joko honetan, atzeko aldetik hartuz eta gurpilek lurra jo gabe, orgari birak eman behar zaizkio. Gurtaga lurreko puntu jakin batean izango du lotua orgak.

ORGAREN ETA LANABESEN EZAUGARRIAK

1.art.- Orgaren egitura egurrezkoa izango da.

2.art.- Orgaren luzera: orga 4 metro 50 zentimetro luze izango da (+-5 cm), aurreko kontzatik kirolariaren besoek orga ukitzen duten punturaino.

3.art.- Gurtaga kontza gainean jarriko da, gutxienez 70 cm x 70 cm-koa izango den xafla baten gainean.

4.art.- Kontza gurtagaren muturrean jarriko da.

5.art.- Kontzaren altuera: 15 zentimetro egin behar ditu gora, (+- 2 cm), lurretik hasita egurraren beheko aldera.

6.art.- Orgaren altuera: Orgak 90 cm-ko altuera izango du (+ - 5 cm), lurretik hasita kirolariaren besoek orga ukitzen duten punturaino.

7.art.- Orgaren pisua: Orgak, pisu gainean dagoela, kontzan sostengatua (atzeko aldean baten gainean), 200 kilo izan behar ditu (haga salbu).

Hagak 100 cm + - 2 cm-ko luzera izan beharko du. Hagak luzera jakin bat izan beharko du, eta behin baskula eta horren gainean bermatutako atzera-zatia lurrean esekita geratuko dira, 10 cm-ko gehieneko tartearekin.

8.art.- Orgak arestian aipaturikoa baino gutxiago pisatuz gero, gain-pisua jarriko zaio, arauzko pisura hel dadin.

9.art.- Gain-pisu hau, kirolariaren besoek orga ukitzen duten puntutik gutxienez 50 zentimetrora jarriko da.

10.art.- Heldulekueetatik heldu behar zaio karretari, eta besoetan eta bularraldean bermatu ahal izango da, baina inoiz ez da jarri behar sorbaldaren, aldakaren eta sokaren gainean, topearekin.

11.art.- Heldulekuak mugikorrak izango dira eta kirolari bakoitzari komeni zaion neurrira egokituko dira.

12.art.- Kirolariak besoak eta bularra babestu ahal izango ditu, betiere babes horrek ez badio heldulekuaren erorketari eusten. Eskuak babesik gabe eta edozein produktutatik garbi joango dira; federazioak emandako magnesioa erabili ahal izango da, betiere epaileak kontrolatuta.

13.art.- Kirolariak nahi duen norabidea aukera dezake, erlojuaren orratzena, edo kontrakoa.



14.art.- Kirolariak bi elkarren segidako ekitaldi egiteko aukera du. Ekitaldi bat ontzat jotzeko, jokalaria gutxienez zirkunferentzia laurdena egin beharko du.

15.art.- Ez dago denbora mugarik proba hau egiteko.

16.art.- Zerbait hautsiz gero, eta ezin bada 15 minutuan konpondu, proba bertan behera utziko da.

17.art.- Hausteko unean kirolaria lanean ari bada, berak hala nahi badu, hautsi arteko marka baliagarria izango da. Osterantzean, epaileak atsedenaldea eskainiko dio eta berriz ere hasieratik hasi beharko du proba.

18.art.- Kirolariak laguntzaile bat eraman dezake probara.

19.art.- Laguntzaileak ezin izango du ez orga ezta kirolaria ere ukitu.

20.art.- Egindako bidea, orgaren atzeko barneko aldetik neurtuko da.

21.art.- Kontza dagoen plataforma gainean, Epaileak adierazitako lagun bat edo bi egon daitezke.